

Milioi bat euro baso enpresa abian jartzeko

Basotik ekimena gauzatzea zaila gertatzen ari dela aitortu du Gipuzkoako Foru Aldundiak, baina 2021eko Aurrekontuan martxan jartzeko partida iragarri du

Aurreko buletinean azaldu genizuen Gipuzkoako Foru Aldundiak abandonatutako edo abandonatzeko zorian dauden lurren kudeaketarako enpresa bat sortu nahi duela, basogintzaren arloko profesionalek kudeatuta. Basotik izena izango omen du eta urriaren 5ean izandako sektore bilera batean jakin berri izan dugu enpresa hau abian jartzeko Gipuzkoako Foru Aldundiak 1.000.000 euro jarriko dituela 2021ean. Horrela aurreikusi dute datorren urteko Aurrekontuan.

Azaldu genizuen ere, duela bi urte Gipuzkoako Baso Elkarteak antzeko proposamen bat egin ziola Aldundiari: parte-hartze merkatu bat. Baso lurren finantzaketa publiko-pribatu partekatu baterako tresna, alegia, Balore Merkatuaren Espainiako Batzordearen ikuskaritzapean. Aldundiak esan digunez, Basotiken eredia lantzen ari den kontsultoreari dokumentazio hura ere helarazi zaio, azter dezan. Bideragarritasun plana egiten ari dira orain.

Arantxa Ariztimuño Baso zuzendariak azaldu zituen urriaren 5eko bilera horretan bertan, Basotiken nondik-norakoak. Aldundiko ordezkariak esan zuenez, “oso konplexua ari da gertatzen forma ematea, baina urtea amaitzerako zehaztuago izatea espero da eta sektorearekin partekatuko da”.

Ariztimuñoaren esanetan, “baso sektoreak egun dituen hainbat zailtasunei aurre egiteko (errentagarritasun baxua, epe luzerako inbertsioak, jabeen adin altua, irudi negatiboa eta bereziki abandonua), basoak kudeatuko dituen enpresa bat sortzea da asmoa. Basojabeek osatuko lukete enpresa, bertako akzioak diruz edo beraien basoen balioaren truke hartuz eta enpresak, aldiz, basoen kudeaketa eta merkaturatze zerbitzu integral bat eskeiniko luke. CO2 merkaturan ere parte hartzea da asmoa”.

Inkestaren emaitza

Aurreko buletinean ere zuen iritzia eskatu genizuen ekimen honen inguruan. Orotara, 84 erantzun jaso ditugu eta hemen dituzue emaitzak:

Beharrezkoa da:	28 boto
Saiatu beharrean gaude:	14 boto
Gehiago jakin beharko nuke:	32 boto
Ez dut uste funtzionatuko duenik:	5 boto
Ez da beharrezkoa:	5 boto

2021eko Aurrekontuko beste laguntza batzuk

2021ko Aurrekontuan ere sektorearentzat beste laguntzak iragarri ditu Foru Aldundiak. Kimuberritu, baso sektorea gaztetzeko ekimenarentzat, 100.000 euro. Baso ikerketa aplikaturako, beste 55.000 euro, baso osasun ikerketa mendira eramateko, alegia. Eta landa lurren digitalizatorako beste 250.000 euro. Hamar urteko epean Gipuzkoako landa lur guztia digitalizatzea da asmoa. Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko du erdia eta beste erdia udalek. Lurjabeari dohainik aterako zaio.